

Tasazioa egin, bermerik ez ezazu galdu: “Pinuak balioa badu; noski baietz!”

Uda ondoren, tasazioak bortizki jaitsi direlaz ohartarazi nahi du GEBEK

Eskatutako mozketa bolumen guztiaren % 40 neurtu du Gipuzkoako Baso Elkarateak aurten, urrira arte

Ahaztu ditugu jadanik, baina garai batean egurzaleek, tratua ixteko neurketak tasatzaile jakin batzuekin egitera bultzatzen zituzten basojabeak. Are gehiago, tarteka gertatzen zen egurzale batek tasatzaile ofizial propioa izatea. Arazo hori gainditzeko Gipuzkoako Baso Elkarateak tasazio zerbitzu bat sortu zuen, bere bazkideei zuzendua. Erabaki zuzena izan zen, eragingarria oso. Zerbitzu horrek ekarri baitzuen elkarateak izango zuen gorakada izugarria: laster batean, 60 bazkide izatetik, 1.000 izatera pasa ginen.

Fernando Otazua, GEBEko zuzendari ohiak gogora ekartzen duenez, garai hartan egindako lehen “neurketek basojabeen oniritzia lortu zuten eta asko borrokatu genuen egurzaleek ere onar zitzaten”. Eta baita lortu ere. Lorpen itzela izan zen. Basojabearentzat berme ikaragarria.

Ordutik hona, zuhaitzak neurtzeko erremintak etengabe garatzen joan dira. Kubikazioak, gaur egun, programa informatiko jakin batzuek egiten dituzte eta odenagailuei emandako datuak, neurtze tresna moderno eta zehatzekin lortzen ditugu. Enborren diametroa eta luzera zehaztasun osoz neurtzen dituzte. Ez dago zalantza izpirik.


Baina tasazio zerbitzu hori bera, garai batean hainbeste borrokatu genuena eta ondorenean basojabeoi sekulako onura ekarri diguna, jaitsiera nabarmena jasan du oso denbora epe laburrean. **Udatik hona, hiru hilabete eskasean, GEBEK egindako tasazioek murrizpen handia jasan dute.**

2020ko urtarriletik urriaren erdira arte, Gipuzkoan 1.175 hektareatan mozketak egiteko baimenak eskatu dira eta horietatik, 464 neurtu ditu GEBEK. Hau da, **155.493 metro kubikoko bolumena, orotara 392.922 moztu behar zirenean.** Kontuan izan behar dugu ere, GEBEz gain, beste 16 tasatzaile daudela, nahiz eta horietako bik soilik mugitzen dituzten bolumen garrantzitsuak.

Kontuan izan behar dugu mozketa baimena egurzalearekin tratua ixten denean eskatzen dela normalean. Hau da, posible da 2020an emandako mozketa baimenen kopuru handi bat 2019an egindako neurketetakoak izatea. Urte horretan, GEBEK 400.000 metro kubiko neurtu zituen eta eskakizun askori erantzun eman ezinik ibili ginen, nahiz eta lan horretarako koadrila bat gehiago espreski kontratatu genuen.

Hortaz gain, bazkide ugarik aitortzen digute erosle gutxi daudela baso pandemiak eragin duen egur eskaintza itzelari erantzuna emateko, eta erosle diren egurzale gutxi horiek zera esijitzen ari direla: tratua egurra moztu eta ondorengo neurketaren arabera egitea, nahiz eta aurretik median bertan neurtuta ere badagoen. Baina larriena zera da, baldintza edo esijentzia hori, urte askotako pinu osasuntsuetan ere egiten ari zaizkigula. Gaixotasunaren izpirik ez dutenetan ere.

Jakitun gara gaixotutako pinu gazteen kasuan, erosleari zail egiten zaiola aurretik eskaintza bat egitea; kontuan izanik, xingola marroiaren gaitza dela eta, azkeneko unera arte, ez dakiela egur horretako zenbait aprobetxatu ahal izango duen. Foru Aldundiak berak egoera hau ulertzen du eta zera onartzen ari da: mozketa baimena basozainak emandako datuekin tramitatzea (25 urtez azpiko pinuak); are gehiago, pinudi zaharragoetan ere, gaitzak erabat jota daudenean, mozketa baimena tramitatzeko, Aldundia onartzen ari da lagin batetik hartutako datuekin egitea.



Jakitun gara, esan dugun bezala. Hori bai, gure ustez, bakar batzuek aprobetxatzen ari dira bizi dugun egoera berezi eta guztiz ez ohiko hau. **Horien helburua, egurra moztu ondorengo neurketa zabaldu eta hedatzea dela uste dugu eta horietan, badakigu, basojabeak beti galtzen atera ohi gara.**

Aitzakia badute, egurraren egoera; eta berriro hasi gara zenbait gauza entzuten, aspaldiko kontu bat, ahaztuta uste genuena: Gipuzkoako Baso Elkartek gaizki neurtzen duela, alegia. Aspaldiko mamuak bueltan dira. Horregatik gogora arazi nahi dizuegu: GEBE beti dagoela prest mendian bertan bere neurketak baieztatzeko. Egia hutsa esaten du mendiak beti.

Jakinen gainean jarri nahi zaituztegu: **Azti ibili! Ez ezazue onartu 'orain, gaitza dela eta, pinuak baliorik ez' duela dion diskurtsoa. "Balioa badu, horregatik erosten dute oraindik"**, azaldu du Jone Maioz GEBEko zuzendari teknikoak. Elkartetik horixe adierazi nahi dizuegu: arretaz ibili eta ez baztertu salmentari bermea emateko dituzun tresnak. "Tasazioa tresna benetan indartsua dugu. Kubikajeari ezin zaio buelta eman. Basojabea horretaz jabetu

behar da. “Ez da inongo tontakeria: Pinuak balio du, horregatik eramaten dute”, gehitu du Maiozek.

Bazkideari gogora arazi nahi diogu, zerbitzu hau lortzeko, tasazioena, urte askoan zehar gogor borrokatu dugula eta 2018z geroztik, tasazioak nolabait kontrolgabetu egin direla eta horrek, ondorioz, basojabeek berme gutxiago edukitzea eragiten duela. Gure mezua, ozen, doakizu, berriro: **Azti ibili! Esnatu!. Iaz tasazio kopuru itzela izan genuen eta beherakada bat-batean iritsi zaigu,, egun batetik bestera. Urte askotan zehar erantzun bikaina eman duen tresna dugu tasazioa. Ez ezazue ahaztu!**

Horrez gain, Maiozek egoki ikusten du garai batean oso lan ona egin zuen kontrol batzordea berreskuratzea. 1995an tasatzaileen erregistro edo zerrenda ofiziala sortu zen, “lorpen garrantzitsua” eta kontrol batzordeak tasatzaile horiek kontrolatzen zituen. GEBEko zuzendari teknikoak gogoratzen du batzorde honek zoriz aukeratzen dituela aurkeztutako mozketak hainbat eskari. **Kontrol horiek sarri egiten zituzten bere garaian eta horrek seriotasun ikaragarria eman zion Tasatzaileen Erregistroari.** “Inori ez zitzaion burutik ere pasatzen tasazio inprimakinean ateratakoa baino egur gutxiago aitortzea. Harrapatzen bazintuzten, tasatzaileen zerrendatik kanpo uzten baitzintuzten. Denborarekin, control horiek asko gutxitu dira eta horregatik, dio Maiozek: **“Oso garrantzitsua litzateke batzordearen kontrol horiek sarriago egitea”.**

GIPUZKOAKO
BASO ELKARTEA

**ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS
FORESTALES DE GIPUZKOA**